

EUSKAMPUS ONKO-ON MISIOA

Euskal Autonomia Erkidegoan paziente onkologikoentzako eskala handiko zerbitzu bat garatzera bideratutako ikerketa-ekintza da, ariketa fisikoaren, nutrizioaren eta laguntza psikologikoaren integrazioan oinarritua.

2023ko deialdia

HITZAURREA

"Interes-adierazpeneko" deialdi honen helburua "Euskampus Misio" bat abiaraztea da, hain zuzen ere, ONKO-ON Misioa, helburu bikoitzarekin:

- Ebidentzia zientifikoa sortzea, paziente onkologikoetan eragin positiboa berresteko (ohiko tratamenduak indartzea, bizi-kalitatea hobetzea, komorbilitate txikiagoa eta biziraupen handiagoa), jarduera fisikoa, nutrizioa eta laguntza psikologikoa barne hartzen dituzten esku hartzeko protokolo anizkoitzen bidez.
- Paziente onkologikoari laguntzeko zerbitzu integrala (edo zerbitzu-ereduak) diseinatzea, garatzea eta hedatzea, paziente bere tratamendu- eta bilakaera-prozesuaren eragile aktibo gisa ahalduentzeko, eta zerbitzua jasangarria, ekitatiboa eta eskalagarria izateko, balioan oinarritutako medikuntza-testuinguru baten barruan. Zerbitzu hori (edo zerbitzu-ereduak) erakunde publiko, pribatu edo publiko-pribatu batek eskaini ahal izango du.

Horrela, ikerketa-ekintza kooperatiboko prozesu bat planteatzen da, erronka sozial handi bati aurre egiteko eskura dagoen ezagutza-oinarria hobetzeko, ebidentzia zientifikoa oinarrituta eta eragin ekonomiko eta sozial handiarekin egituratutako esku-hartze zorrotzak garatuz.

Euskampus Fundazioak 2023-2025 aldiari misio honetarako erabiliko duen hasierako aurrekontua 0,5 milioi eurokoa izango da, eta ondorengo deialdien bidez antolatuko da. Aurrekontu horrek bestelako finantzaketa publiko eta/edo pribatu batzuk bideratu ahal izango ditu.

ABIAPUNTUA

Azken hamarkadetan, diagnostikatutako minbizien kopuru absolutuak gora egin du biztanleriaren hazkundeagatik, biztanleria zahartzeagatik, arrisku-faktoreen eraginpean egoteagatik (tabakoa, alkohola, kutsadura, obesitatea eta sedentarismoa, beste askoren artean) eta, minbizi mota batzuetan, detekzio goiztiarrak gehitzeagatik. Minbizi heriotza-kausa nagusietako bat da mundu osoan, eta esanahi negatiboa du gure gizartean, heriotzarekin ez ezik, minarekin eta sufrimenduekin ere lotzen delako. Horregatik, eragin handia du eraginpeko pertsonen subjektibotasunean eta iruditeria kolektiboan. Gainera, minbizi zama handia da lurralde bateko ekonomiarako; izan ere, intzidentzia gero eta handiagoak, tratamendu eta ekipamendu medikoen kostu handiaren ondorioz osasun-sistemak tenkatzeaz gain, produktibitatea galtzea dakar heriotza goiztiarren eta laneko bajen ondorioz. Horri gehitu behar zaio minbiziarekin bizi diren pertsonen eta haien zaintzaileen ekonomiari ere eragiten diola.

Programa publiko eta pribatuen bidez, prebentzioan, detekzio goiztiarren eta minbiziaren tratamendu eraginkorragoetan inbertitzea funtsezkoa da minbizia dutenen bizitzak salbatzen eta hobetzen laguntzeko, bai eta diru publikoa, pazienteena eta haien ingurukoena aurrezteko ere. Horregatik guztiagatik, minbiziari aurre egitea garrantzi sozial handiko erronka da, eta gobernu eta osasun-sistema guztien agendan lehentasun handiena ematen zaie lurralde-eskala desberdinetan.

Honako hau adierazten duen ebidentzia zientifiko ugari dago:

- ariketa fisikoak (indarra, aerobikoa, bien konbinazioa);
- nutrizio zaindu, zuzendu eta pertsonalizatuak;
- laguntza psikologikoak, erlaxazio-tekniken, auto-kontrolaren, emozioen kudeaketaren eta abarren bidez,

eragin positiboa dute terapia konbentzionalen efikazian, bizi-kalitatean eta minbizia duten pazienteen eta ikuspuntu klinikotik tratamenduak arrakastaz gainditu dituztenen biziraupenean.

Zehazki, ebidentzia sendoa da ariketa fisikoak funtzio fisikoa, gorputz-osaera eta bizi-kalitatea hobetzen dituela, eta nekea, depresioa eta antsietatea murrizten dituela minbizia duten pazienteengan eta minbizia gainditzeko dutenengan. Gainera, argitaratutako hainbat lanek adierazten dute (hain sendoak ez diren ebidentziekin) ariketa fisikoak loa, hezur-osasuna eta tratamenduarekiko tolerantzia hobetu ditzakeela eta minbiziaren aurkako terapien albo-ondorio batzuk arindu. Halaber, nabarmentzekoa da azterlan askotan azaldu dela lotura positiboa dagoela minbizia duten pazienteek egiten duten jarduera fisikoaren eta haien biziraupenaren artean. Ildo beretik, esperimentazioko animaliekin egindako azterketetan, ariketak tumoreen tamaina eta infiltrazio-tasa murrizten ditu. Hala ere, minbizia gainditzeari eta minbiziaren tratamenduari buruzko emaitza itxaropentsu horiek saiakuntza klinikoen bidez berretsi beharko dira. Emaitza positibo horiek kontuan hartuta, hainbat herrialdetako onkologiako profesionalen elkarteek eta hainbat ekimenek ariketa fisikoa gomendatu eta agintzen dute minbiziaren arretarako praktika estandarraren zati gisa. Hala, minbiziaren eta haren tratamenduaren ondorio kaltegarriari aurre egiten laguntzen duen terapia osagarritzat jotzen da ariketa fisikoa. Era berean, aipagarria da minbizia tratatzeko garaian pertsonei nutrizio-euskarria emateko proiektuak daudela.

Halaber, kontuan hartu behar da komorbilitate psikiatrikoa ere. Izan ere, minbizia duten pazienteek arrisku handiagoa dute sintomatologia psikiatrikoa izateko eta buru-nahasteren bat garatzeko edo suizidatzeko. Beraz, ezinbestekoa da laguntza psikologikoa. Ariketa fisikoak eta nutrizioak egoera psikologikoa hobetu dezaketela eta horrek minbiziaren gaixotasunaren bilakaeran eragina duela erakusten duen literatura ere badago. Gainera, pazienteari eta haren inguruneari laguntza psikologikoa ematea ezinbestekoa da tratamendu konbentzionalei eta edozein esku-hartze osagarriari atxikitzeko.

Hala eta guztiz ere, aipatutako dimentsioak hartzen dituzten protokolo espezifiko eta sistematikoak garatzeko eta minbizia duten pazienteei eta gainditzen dutenei modu masiboan eskain dakizkiekeen protokolo anizkoitz horietan oinarritutako zerbitzuak ezartzeko, oraindik ere azterketa zorrotzak garatu behar dira, ebidentzia zientifiko handiagoa eta sendoagoa emango dutenak, eta modu erosoan aztertuko dutenak haien inplementazio praktikoak balioan oinarritutako medikuntzaren ikuspegiarekin ekar dezakeen inpaktu ekonomiko eta soziala.

EUSKAMPUS MISIOAK

Euskampus Fundazioa Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko erakunde bat da, eskaintza-eskariaren bitartekaritza-eragile gisa aitortua. Bere eraketagatik eta misioagatik, Euskampus bere patronatuko kideen eta euskal lurraldeko beste edozein eragileren artean (Bordele barne hartzen duen perimetro hedatuan) benetan zeharkakoak diren eta guztion onerako eragin potentzial handia duten ekintza kooperatibo konplexuak antolatzen bideratuta dago.

Euskampus 2030 Plan Estrategikoan, Euskampus Misioak aintzat hartzen dira UPV/EHUK, Bordeleko Unibertsitateak, TECNALIAK eta DIPCK, bakoitzak bere aldetik, dituzten gaitasun talentu eta esperientzien aniztasun aberatsa antolatzeko modu gisa. Horrela, lankidetzari norabide zehatz bat emango zaio eta, horri jarraituz, hainbat kolektiboren ekintzak gidatuko dira: ikasle, irakasle, ikertzaile, kudeatzaile, profesional eta enpresa eta gizarte eragileenak, baita herritarrenak ere.

Euskampus Misio bat Euskampuseko erakunde patronoek gidatutako erantzun kolektibo bat da, beste erakunde eta eragile batzuekin hitzartua, erronka zientifiko, teknologiko, ingurumeneko, kultural, ekonomiko eta sozial handi bati edo haien nahasketa bati aurre egiten dioten aurrez zehaztutako helburuak lortzeko, hezkuntza-, ikerketa-, transferentzia- eta ezagutzaren hedapen-ekintzen agenda koordinatu baten bidez.

Euskampus Misioak programak ikerketa-, prestakuntza- eta berrikuntza-eragileen sareak sortzeko eta antolatzeko sortu dira. Sare horiek ekintza koordinatuetan parte hartuko dute, gizarte-inpaktu handiko esparruetan misio espezifikoak definitzeko eta garatzeko. Horretarako, diziplinarteko ahalmenak mobilizatuko dira, zeharka eta modu sistemiko eta antolatuan, diseinu-fasetik egikaritze-fasera arte aktibatu behar direnak.

Euskampus Misioak bat datoz Euskal Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta Europako ikerketa eta berrikuntzako eta lurralde-garapeneko politika eta planekin, zehazki Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 2030 Planarekin (ZTBP2030) eta Horizon Europe programarekin, eta horietan jasota daude.

ONKO-ON Misio honen kasuan, sintonia argia dago 2030erako ZTBPrek Zeharkako Ekimen Traktoreen helburuekin eta hedapenarekin; eta bat dator Horizon Europe-ren Europako Misioen esparruarekin, bereziki Minbizia Misioarekin, diagnostikoak eta tratamenduak optimizatzeari eta minbizia duten pazienteen bizi-kalitatea babesteari

lehentasuna emanaz. Halaber, bat dator Europe 's Beating Cancer Planaren helburuekin, Estatuko Osasun Sistemaren Minbiziaren Estrategiarekin, 2018-2023 Euskadiko Onkologia Planarekin eta Osakidetza 2023-2025 Plan Estrategikoarekin.

HELBURUA

ONKO-ON Misioa 2023ko Deialdi honen helburua "interes-adierazpenak" jasotzeko prozesu bat irekitzea da, Euskampus ONKO-ON misioan parte hartzeko eta hura garatzen laguntzeko, dokumentu honetako xedapenetan jasotako prozedura eta irizpideen arabera.

XEDAPENAK

1. artikulua. – Parte har dezaketen erakundeak

ONKO-ON Misioan parte hartzeko lehen deialdi hau Euskampus Erakundeetako ikertzaileentzat bakarrik izango da¹.

2. artikulua. – Interes-adierazpenen orientazioa.

ONKO-ON misioak, besteak beste, honako jarduketak hauek aurreikusten ditu:

- Misio honen inguruan mobilizatu behar diren eragileak identifikatzea, bai Euskampus erakundeetakoak, bai beste edozein erakunde edo interes-taldekoak.
- Esku hartzeko plan multidimentsional bat diseinatzea eta ezartzea, aipatutako hiru faktoreak (ariketa, nutrizioa eta psikologia) konbinatu eta integratzen dituzten minbiziaren aurkako terapien protokolo osagarrien bidez (ez alternatiboak). Protokolo horiek ezaugarri hauek dituzte:
 - Pertsonalizatuak eta egituratuak dira, pertsona bakoitzaren egoeratik abiatu (adina, minbizi-mota eta -fasea, tratamendu medikoaren mota eta fasea, lanbide-egoera, harreman-egoera, etab.) eta inplementazioa pertsonaren beraren bilakaerara egokitzen dute.
 - Monitorizatuak dira, erregistro konstante eta sistematiko baten bidez, aldizkako neurri eta analisisien bidez, parametro fisikoen bidez (hala nola pisua, muskulu-masa, gantza, funtzio fisikoa, etab.), biomarkatzaile espezifikoaren bidez (minbizi-motaren, gaixotasunaren fasearen eta egiten ari den tratamendu motaren araberrakoak), eta pertsona bakoitzaren bilakaera psikologikoaren erregistro iraunkor baten bidez (bizi-kalitatea, nekea, loa, mina, etab.).

¹ Euskampus Erakundeak ezagutza sortzaile diren haren Patronatuko kideak dira: UPV/EHU, Tecnalia, DIPC eta Bordeleko Unibertsitatea.

- Hori dela eta, paziente bakoitzaren bilakaera fisiko eta emozionalari laguntzen dion diziplina anitzeko talde batek diseinatu eta gainbegiratzen ditu.
- Esku hartzeko plan hori ikerketa-ekintza programa gisa garatzea, ikerketa eta esku-hartzea konbinatuta eta aipatutako jarraipen zorrotz eta zehatzarekin, interes-taldeetan izandako eragina baloratu eta neurtu ahal izateko. Horretarako, adierazle kuantitatiboetan oinarritutako kontaketa egituratuak sortuko dira, ebidentzia handiagoa emateko eta protokolo eraginkorragoen eta eskala handiagokoen bilakaera gidatzeko balioko dutenak.
- Protokolo horiek hedatzeko zerbitzua (edo zerbitzu-ereduak) garatuko duen ustiapen-/inplementazio-eredu bat sortzea, eskaintza "komertzial" baten bidez. Eskaintza hori egituratua eta ebidentzia zientifikoan oinarritua izango da, minbizia duten pazienteei eta gainditzen dutenei agindu ahal izango zaie eta ekitatiboa, jasangarria eta eskalagarria (publikoa edo pribatua, publiko-pribatua, irabazi-asmoa duena edo irabazi-asmorik gabekoa, eta abar) izango da, balioan oinarritutako medikuntza-paradigmaren barruan.
- Aurreikusitako jarduketa guztietarako jarduketa-egutegi bat ezartzea.
- Aurrekontu zenbatetsia definitzea eta egikaritzea.

Interes-adierazpenek, bereziki, honako gai-ildo hauetan lagunduko dute, eta argi eta garbi identifikatu behar dute zer erronka zehatzi erantzuten dioten eta nola egiten duten bat misio osoarekin:

- Paziente onkologikoentzako ariketa fisikoko protokoloak garatzea.
- Paziente onkologikoentzako nutrizio-protokoloak garatzea.
- Paziente onkologikoentzako laguntza eta esku-hartze psikologikoko protokoloak garatzea.
- Protokolo horietan oinarritutako esku-hartzeak inplementatzeko, haien jarraipena egiteko eta kontrolatzeko metodologia multidimentsionalak garatzea/aplikatzea.
- Datu-bolumen handiak atzematea eta kudeatzea.
- Adimen artifiziala garatzea eta app pazienteei laguntzeko, datuak kudeatzeko eta erabakiak hartzeko.
- Inpaktu ekonomiko eta soziala neurtzea
- Zerbitzua(k) balioan oinarritutako medikuntza-ereduaren arabera definitzea.
- Zerbitzuetarako negozio-eredu posibleak garatzea.
- Misioa garatzen laguntzeko egokitzat jotzen den beste edozein ildo.

Oso positibotzat joko da proposamenek graduko edo graduondoko ikasleak edo berriki ikasketak amaitu dituzten ikasleak inplikatzeko zenbait jarduera barne hartzea, bai eta prestakuntza-eskaintza berria planteatzea ere.

3. artikulua. – Euskampusen ekarritako finantzaketa.

Euskampusen emandako laguntza erakunde bakoitzari transferituko zaio, eta erakunde bakoitzaren barruan unitate parte-hartzaile bakoitzari emandako zenbatekoa adieraziko da. Erakunde onuradunek beren barne-prozeduren arabera kudeatuko dute laguntza,

parte-hartzaileek planteatutako jardueretara baino ez dira bideratuko eta ezin izango da zeharkako kosturik kargatu. Honako hauek ordaindu ahal izango dira:

- Langile-kostuak.
- Askotariko egikaritze-kostuak, hala nola suntsikorrenak, materialenak, argitalpenenak, bidaienak, barneko eta kanpoko bilerak antolatzearenak, etab.

Erakunde bakoitzean parte hartzen duten langileen beste laguntza edo funts batzuk kofinantzatzeko izango dira laguntzak, eta lehentasuna izango du eskatutako edo abian jarritako proiektuekiko osagarritasunak, banakako proiektuak nahiz proiektu kolektiboak izan, baldin eta interes-adierazpenaren planteamenduari erantzuten badiote. Lehentasuna emango zaie, orobat, tokiko, estatuko eta, batez ere, nazioarteko beste deialdi batzuetarako edo erakunde pribatuen babesak bilatzeko proiektzioa dutela frogatzen duten planteamenduei, eta Euskampusen laguntzaren bidez sartuko dira programa eta finantzaketa horietara.

Euskampusen 200.000 euro bideratuko ditu deialdi honetara. Finantzaketa horrek, 2023, 2024 eta 2025eko ekitaldietan jardueran sortutako gastuak estali ahal izango ditu.

4. artikulua. – Hautatutako parte-hartzaileen betebeharrak

Euskampus Fundazioak eginkizun sustatzailea izango du, planteatutako helbururako orientazioa une oro mantenduz eta misioaren koordinazio orokorra eginez:

- Lantaldeetan elkartuko ditu parte-hartzaileak.
- Jarduketa-planaren definizioa erraztuko du.
- Jarduera guztien hedapena kudeatuko du.
- Inplikaturako eragile eta interes-talde guztien arteko lankidetzak bideratuko du.
- Misioaren ordezkari gisa, misioaren garapenera ekarpena egin diezaioketen edo haren onuradun izan daitezkeen eragile publikoekin eta pribatuekin hitz egingo du.
- Misioa hedatzeko kanpo-finantzaketa bilatzeko lan aktiboa egingo du.

Horregatik guztiatik, Euskampusen egungo deialdira aurkeztutako adierazpenak hautatu eta onartzeak honako betebeharrak hauek ekarriko dizkie onuradunei:

- Misioaren Jarduketa Plan Orokorren definizioan eta garapenean parte-hartze aktiboa izatea.
- Gainerako parte-hartzaileekin modu aktiboan elkarlanean aritzea, misioaren ikuspegi kolektiboa partaide bakoitzaren interes partikularren gainetik jarritz.
- Kanpoko eragileekin elkarlanean aritzeko bideak bilatzea, misioaren garapena eta eragina aberasteko.
- Etengabeko koordinazioa misioa bultzatzeko eta kudeatzeko ardura duen Euskampusen talde eragilearekin.

- Euskampusen emandako finantzaketa misioaren zati gisa onartutako jardueretarako bakarrik erabiltzea.

5. artikulua.– Interes-adierazpenak aurkezteko prozedura

Interes-adierazpenen proposamenak erantsitako "Euskampus_Misioak_3.0" ereduaren arabera egingo dira. Memoriak honako atal hauek izango ditu:

1. Misioa ulertzea. Planteatutako misioa balioestea eta interpretatzea eskatzen dugu, hura ulertzeko behar diren testuinguru-elementuekin. (Orrialde bat)
2. Proposatutako lan-planteamendua, balio-proposamena eta haren izaera integrala eta sistemikoa nabarmenduz eta honako alderdi hauek zehaztuz (gehienez 9 orrialde):
 - a. Testuingurua
 - b. Lortu nahi diren helburuak
 - c. Laneko plana
 - d. Aktibatutako baliabide propioak
 - e. Aktibatzea espero den kanpoko baliabideak
 - f. Espero diren emaitzak eta inpaktuak
 - g. Lan-egutegi potentziala
 - h. Aurrekontu zenbatetsia
3. Interes-adierazpenarekin zerikusia duten langileak. Pertsonen edo taldearen aurkezpena, planteatutako proposamenarekiko egokitasuna adieraziz (gehienez 2 orrialde).
4. Balio-proposamen hau bultzatu duen taldea abalatzeko duten aurrekari eta erreferentzien zerrenda. (gehienez 2 orrialde)
5. Jarduketan zehar mobilizatu nahi diren beste aktore/eragile batzuk, haien presentzia eta proposamenari ematen dioten balioa justifikatuz (gehienez 2 orrialde).

Interes-adierazpen batean ageri diren kideen curriculum vitae laburtuak (CVL) erantsiko dira, Espainiako Zientzia eta Ikerketa Ministerioak ezarritako Zientzia eta Teknologiarekin Espainiako Fundazioaren (FECYT) formatuaren arabera. CVLa automatikoki sortzen da FECYT-en Curriculum vitae Normalizatua aplikaziotik. Bordeleko Unibertsitateko ikertzaileek ANR Agence Nationale de la Recherche erakundeak proposatutako formatuan aurkeztu ahal izango dute beren CVA.

Deialdi honetarako interes-adierazpenak posta elektronikoz bidaliko dira misiones@euskampus.eu helbidera, #misiones_euskampus_2023 erreferentziarekin, abenduaren 10eko 17:00ak baino lehen. Data horren ondoren jasotako adierazpenak ez dira kontuan hartuko.

Euskampus Fundazioak aukera izango parte hartzen duten pertsonen eskatzeko aurkeztu duten adierazpena egoki ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko beharrezko irizitako bestelako argibide edota agiri osagarriak.

Deialdi honetan parte hartzeak haren oinarriak eta ebazpena onartzea dakar berekin, eta ebazpena ezin izango da aurkaratu.

6. artikulua. – Proposamenak onartzea eta zuzentzea.

Proposamena oso-osorik betetzen ez bada, edo prozedura honetan eskatutako dokumentazioarekin batera aurkezten ez bada, interesdunari eskatuko zaio (ahal dela, posta elektronikoz) **2 egun balioduneko epean** akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio hala egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

Proposamenean eskatutako memoria ez biltzea zuzendu ezin den akastzat joko da.

7. artikulua. – Aurkeztutako interes-adierazpenen balorazioa.

Deialdi honetan jasotako interes-adierazpenetatik abiatuta, Euskampus Fundazioak lortu nahi diren helburuetara gehien eta ondoen egokitzen den misio-proiektua eratzeko aukera emango dioten planteamenduak hautatuko ditu.

Adierazpenak Euskampus Fundazioaren barruko batzorde delegatu batek hautatuko ditu, eta Batzorde Betearazleak onartu.

Balorazio-prozesuaren ondorioz, misioa garatzen hasiko diren lantaldeak ezarriko dira, eta Euskampus misioen balioekin eta ONKO-ON misioaren helburuekin bat ez datozen adierazpenak atzera bota ahal izango dira.

Izarea pertsonaleko datuen babesa

Indarrean dagoen araudiaren arabera, parte hartzeko eskaeran emandako datu pertsonalen tratamendua honako hauen arabera arautuko da:

- Tratamendu-arduraduna: Euskampus Fundazioa (IFZ: G95658688).
- Helburua: eskatzaileak 2023ko **“ONKO-ON Euskampus Misioa”** deialdian parte hartzeko modua kudeatzea; baliabide elektronikoen bidez Euskampus Fundazioaren jardueren berri ematea (parte hartzeko web formularioaren bidez horretarako berariazko baimena eman badu soilik); Euskampusen webgunean eta sare sozialetan deialdi honetako onuradunen izen-abizenak argitaratzea.
- Tratamenduaren legezko oinarria: deialdi honetan parte hartzeko formularioa bidaltzean emandako berariazko baimena da Euskampusen parte-hartzaileen datu pertsonalak tratatzeko duen legezko oinarria.
- Datu pertsonalak gordetzea: Euskampusen deialdiko parte hartzea kudeatzeko behar den epean bakarrik gordeko ditu parte-hartzaileen datu pertsonalak; epe hori amaitu ondoren, ezabatu egingo dira. Euskampusi jakinarazpenak bidaltzeko adostasuna emanez gero (adibidez, ekitaldi, jarduera eta deialdi propioei buruzko informazioa), datuak gorde egingo dira, baimena errebokatu dela jasota geratzen den arte.
- Hartzaileak eta nazioarteko transferentziak: Euskampusen eskaera administratibo eta/edo judizial bati jarraituz beharrezkoa denean bakarrik

jakinaraziko ditu 2023ko “**ONKO-ON Euskampus Misioa**”n parte hartu dutenen datuak.

- Euskampusek ez die datuen nazioarteko transferentziarik egingo hirugarren herrialdeei (salbu Euskampus Fundazioaren patronatuko kide den Bordeleko Unibertsitatearen eta hari lotutako erakundeen kasuan).
- Interesdunen eskubideak: legediak zenbait eskubide aitortzen ditu parte-hartzaileen datu pertsonalen tratamenduari dagokionez. Parte-hartzaileek beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta tratatzearen aurka egiteko eskubidea izango dute, baita eramangarritasuna eskatu eta emandako baimena kentzekoa ere. Horretarako, posta elektronikoa erabili ahal izango dute (info@euskampus.eu helbidera idatzi, gaian “Eskubideez baliatzea” jarriz eta mezuan beren izen-abizenak eta NANA sartuz) edo posta arrunta (Euskampus Fundazioa, Errektoregoa - Sarriena auzoa z/g - 48940 Leioa – Bizkaia – Spain). Era berean, Datuak Babesteko Espainiako Agentziara jo ahal izango dute xede horretarako, www.aepd.es helbidearen bidez.